

30. FITXA Bizikidetza eta giza eskubideen arloko proiektuak garatzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udal eta gainerako toki-entitateentzako laguntzak

Nori zuzendua: Euskal Autonomia Erkidegoko udalak eta gainerako toki-entitateak.

Sarbide-esteka: [Udalei bizikidetza eta giza eskubideen programetarako dirulaguntzak 2024. urterako - Eusko Jaurlaritza \(euskadi.eus\)](#)

Erreferentziazko araudia: [EBAZPENA, 2024ko maiatzaren 2koa, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasuneko zuzendariarena, zeinaren bidez bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak egiten dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udal eta gainerako toki-entitateentzako laguntzen deialdia egiten baita](#)

Eremuak: Giza Eskubideak

Zenbatekoa: 250.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2024/06/20

Laburpena

Deialdi honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko udal eta gainerako toki-entitateen proiektuak finantzatzeko dirulaguntzen deialdia egitea, proiektu horiek bizikidetzaren kultura, giza eskubideen errespetua eta enpatia eta elkartasuna bultzatzen dituzten gure gizartean.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Laguntzok ondoren azaldutako jarduera-eremuetan sartzen diren programa eta jardueretarikoren bat egitera zuzendu beharko dira:

a) Bizikidetza eta Giza Eskubideak:

1. – Partaidetzako, zabalkundeko edo heziketa sozialeko jarduerak, giza duintasunaren, giza eskubideen eta bizikidetza adiskidetuaren aldeko konpromisoa sustatzera zuzenduak.
2. – Edozein biolentzia-motari, terrorismoari edo giza eskubideen urraketari dagokienez kritiko agertzen den eta horiek guztiak deslegitimizatzen dituen kontzientzia kritikoa sustatzera zuzendutako ekimenak.
3. – Iraganean izandako edozein biolentzia-formaren aurrean gogoeta kritikoa egiteko prozesuak

babesten dituzten programak, bai eta gizarteratzeari buruzkoak ere, Europan dagoen justizia leheneratzailearen aldeko korrontearen ildoan.

4. – Gizarte-partaidetzako eta desberdinen arteko elkarriketako esperientziak, mintzagai hau dutenak: bizikidetzaren normalizatu baten erronkak, aniztasuna eta gizarte-elkartzea sustatzen dutenak.

b) Biktimak eta gizartea:

1. – Terrorismoaren biktimei laguntzeko ekintzak.

2. –Giza eskubideen urraketen biktimei laguntzeko jarduerak, motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan.

3. – Biktimen eta gizartearen arteko batasuna sustatzen duten programak, bai eta bizikidetzaren alde biktimen ekarpena sustatzen dutenak ere, haien aurrerapenen partaide bezala.

c) Dibertsitatea eta elkartasuna:

1.- Arrazakeriaren, xenofobiaren edo gorroto-delituen prebentzioaren eta dibertsitatearen kudeaketa positiboaren balioak sustatzen dituzten proiektuak.

2.- Desberdintasunaren, diskriminazioaren, injustiziaren edo bazterketaren forma kritikoen aurrean elkartasunaren eta inplikazio sozialaren balioak sustatzen dituzten esperientziak.

3.- Biolentziaren adierazpen berrien, gerraren eta nazioarteko terrorismoaren aurrean, elkartasun, inplikazio eta mobilizazio sozialeko ekintzak.

Gastuetarako aldi hautagarria

Proiektuak **2024ko urtarrilaren 1etik 2025eko irailaren 1era** bitartean garatu ahal izango dira.

Laguntzen zenbatekoa

Entitate onuradun bakoitzak, gehienez, **15.000 €** jaso ahal izango ditu, eta deialdi honetan jaso ditzakeen laguntzen gehieneko zenbateko osoa ezingo da inolaz ere izan **50.000 €** baino handiagoa.